


EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA



EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

FESTA GUNEETAKO ERASO SEXISTEI AURREA

HARTZEKO ETA ARTATZEKO

2017KO TOKIKO PROTOKOLOA ETA 2018KO ERANSKINA

Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua





AURKEZPENA *

* 2018ko eranskinean osatua

Altsasuko udalak, Emakume eta Berdintasuna Batzordeak eskaturik, 2017ko abuztuaren 30eko osoko bilkuran, **Festa guneetako eraso sexistei aurrea hartzeko eta artatzeko toki protokolo** hau onartu zuen.

Protokoloa Altsasuko Mugimendu Feministak, indarkeria matxista jasateko arriskuan dauden emakumeak artatzeko Koordinazio Taldeak eta Genero Indarkeriatik Bizirik Atera Diren Emakumeen Taldeak adostu dute.

Protokoloak barnean hartzen du 2016. urtean Altsasuko Mugimendu Feministarekin eta Herri Mugimenduarekin batera egindako lana. Lan horretatik, **Altsasuko festa guneetako eraso sexistei aurrea hartzeko eta artatzeko gida** atera zen eta protokolo honek gida hori hartzen du oinarri.



Oinarri hartzeaz gain, osatu ere egiten du, udalaren beraren eta eraso sexistei aurrea hartzen eta artatzen diharduten beste zerbitzu batzuen lana ere biltzen du eta. Alde horretatik, egindako lana eskertu nahi zaizkie Nafarroako Berdintasunerako Institutuari eta Nafarroako toki entitateetako berdintasun teknikari taldeari.¹ Haien lanaren ondorio da gure protokoloaren oinarrian dagoen

¹ Ablitasko udala, Altsasu/Alsasuako udala, Antsoaingo udala, Barañaingo udala, Baztango udala, Berriozarko udala, Burlatako udala, Cintruénigoko udala, Estella/Lizarrako udala, Iruñeako udala, Ribaforadako udala, Tafallako udala, Tuterako udala Eguesibarko udala, Villava/Atarrabiako udala, Zizur Nagusiko udala, Nafarroako Erdialdeko Garapen





Festa guneeetako eraso sexisten prebentziorako eta arretarako toki protokoloaren eredia.


Hori dela eta, udal honek, protokoloa aurkezteko, bere egingo du talde teknikoak eredia aurkezteko esandakoa:

Aurkezten dugun **Festa guneeetako eraso sexisten prebentziorako eta arretarako toki protokolo** proposamen hau erantzun bat da tokiko esparruan ikusi diren beharrei erantzuteko. Proposamena Nafarroako Toki Entitateetako Berdintasun Teknikarien Sareak osatu eta adostua izan da, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren laguntzaz.

Lan eremu oso bat eskaintzen du, egiturazkoa den arazo sozial honi era bateratu eta, beraz, eraginkorrean erantzun eta aurre egiteko; izan ere, gure ustez, festa guneeetako eraso sexisten zergatia gizarte heteropatriarkal eta androzentrikoa da, emakumeen aurkako desberdinkeriak eta bereizkeriak mantentzen dituena, eta alde horretatik erasook gizarte mota horren beste adierazpen bat dira.

Genero berdintasuna Nafarroako toki entitateetan. Udaletako berdintasun alorrak planifikatzeko, kudeatzeko eta ebaluatzeko ibilbidea dokumentuak, Nafarroako toki entitateetako berdintasun teknikariekin batera Nafarroako Berdintasunerako Institutuak egindakoak, **emakumeen aurkako indarkeria** bere lan esparruetako bat bezala zehazten du. Ibilbideko 1. lerro estrategikoak, **Emakumeen aurkako indarkeria toki entitatean**, neurri bat du protokolo jakinak diseina, abian jar, jarrai eta egokitu daitezen, Nafarroan emakumeen aurkako indarkeriari koordinazio eraginkorraren bidez aurrea hartzeko eta artatzeko.

Bestetik, **14/2015 Foru Legeak, apirilaren 10ekoak, Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egitekoak, 17. artikuluan** zehazten du toki entitateek sentsibilizazio kanpainak egin behar dituztela, emakumeen kontrako diskriminazio eta indarkeriaren gaitzespen soziala sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egiteko.






Horretarako, Nafarroako toki entitateetako berdintasun teknikariok, toki entitate horietako zenbaitetan era independentean egindako lanetik abiatuak, geure esperientzia eta praktika onak eskaini, eta adosturiko protokolo proposamen honetan jasotzen ditugu, Nafarroako toki administrazioen arteko helburuez eta lan komunerako estrategia batez lagundurik.

Aurkezten ari garen protokolo eredu ongi eta era egokian aplikatu dadin, edukia egokitzea eskatzen du, alegia, toki entitateen eta udalen ezaugarrietara, zerbitzuen egiturara, aurretik egindako lanera eta abarretara egokitzea.

Azkenik, esan nahi dugu proposamen honek ez dituela, inola ere, zenbait toki entitatek jada onartu eta abian jarri dituzten protokoloak ordezkatu nahi; berdintasunaren aldeko eta emakumeen indarkeria ororen aurkako udal politika publikoak osatzea, laguntzea eta sendotzea du helburu. (2017ko maiatzaren 30a)

DOKUMENTUKO EDUKIA

I. ZATIA:	
1. ZIOEN AZALPENA	5
2. TESTUINGURUAN KOKATZE TEORIKOA	7
3. TERMINOLOGIA	8
4. PROTOKOLOA KUDEATZEKO EGITURAK	11
II. ZATIA: PROTOKOLOAREN BIDEAK	
1. AURREA HARTZEKO BIDEAK	13
2. JARDUNBIDEAK	14
3. KOORDINATZEKO BIDEAK	20
4. KANPOKO KOMUNIKAZIORAKO BIDEAK	21





I. ZATIA

1. ZIOEN AZALPENA


Altsasuko udalak, toki entitate moduan, jarrera aktiboa izan behar du festa gunetan emakumeen aurka eragiten diren indarkerien aurrean, sendo eta aho batez salatu behar ditu, eta indarkerioi aurrea hartzeko eta errotik kentzeko lan egin behar du.

Gainera, udalerrriaren iraunkortasunarekiko konpromisoak berekin dakar bidezkoagoak, berdinsunezkoagoak, diren harremanen eredu berri bat eraikitzearen alde egitea, balio patriarkalak eta matxistak gure herritik behin betiko baztertzeko. Horretarako, bere egiten du herritarrak eta beren ingurua zaintzeak politika publikoen muinean egon behar duelako ideia, balio feministek egiten duten moduan, uste baitu emakumeen aurkako indarkeriek garapen jasangarriari era larrian erasotzen diotela.

Asmoa da biztanleria osoa, herritarrak, erakundeak eta taldeak, emakumeen kontrako indarkeria ezabatzearen arduradun sentiaraztea: **dei berezia egitea gizon helduei eta gazteei horretan laguntzeko eta konplize ez izateko; eta emakume gazteak eta helduak animatzea mota guztietako erasoerentzuteko eta beste emakume batzuen babesa bilatzeko.**

Protokolo honen bidez, eraso sexistei dagozkien aurrea hartze, sentsibilizazio eta artatze neurriak, koordinazio egiturak eta komunikazio prozedurak sistematizatu eta adostu nahi dira. Horregatik, helburu hauek planteatzen ditu:

- Biztanleak sentsibilizatzea, uler dadin festa gunetako eraso sexistak emakumeen aurkako indarkerien agerpenetako bat dela eta guztion erantzukizuna direla.
- Festa gunetan eraso sexistei aurrea hartzea.
- Jakitea bai nola jardun bai nola eman erantzun egokia eraso egoera bakoitzari.
- Koordinatzen jakitea, eraso jasan duen emakumea modurik hoberenean artatzeko.
- Gizartea informatzeko eta gizarte komunikaziorako prozesuak eta funtzioak finkatzea.






Gainera, jardun honen bidez, **4/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egitekoa**, bere egiten du. Foru Legeak 17. artikuluan, *Sentsibilizazio sozialerako eta informaziorako neurriak* izenekoan, hau jasotzen du:

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta toki entitateek sentsibilizaziorako kanpaina instituzionalak eginen dituzte, emakumeen kontrako diskriminazio eta indarkeriaren gaitzespen soziala sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egiteko.
2. Horrekin batera, informatzeko kanpainak eta ekintzak eginen dira, emakumeek behar besteko informazioa izan dezaten haien eskubideez eta dauden baliabideez, eta arreta berezia emanen zaie talde hauei: landaguneetako emakumeei, migratzaileei, ijitoen etniakoei, desgaitasuna edo menpekotasuna dutenei, gizartean baztertuta, arriskuan edo egoera ahulean daudenei eta babesgabezia handiagoa izan daitekeen talde edo esparruei, horien artean, lan esparruari.

Era berean, 20. artikuluan, *Indarkeria detektatzeko erantzukizun soziala* izenekoan, hau adierazten du: Foru Administrazioak detekzio, jarduketa eta deribaziorako protokolo bereziak prestatuko ditu bere lurralde esparruko toki entitateekin elkarlanean, eta prozesu horietan dituen inplikazioa eta eginkizunak kontuan harturik. Protokolo horiek emakumeen aurkako indarkeria mota guztiei aurre egiteko bideak jasoko dituzte.


Azkenik, lan honek Altsasuko udalak 2016ko uztailaren 27ko osoko bilkuran onarturiko **Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunerako II. jarduera planeko** bi neurriari erantzun nahi die: 16. neurriari, *Toki protokolo bat idaztea eta onartzea emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko*, eta 18. neurriari, *Sentsibilizazio kanpainak egitea*, 2. esku-hartze esparrukoan, *Emakumeen aurkako indarkeria*.





2. TESTUINGURUAN KOKATZE TEORIKOA

- Nazio Batuen Erakundeak adierazten duen bezala, emakumeen aurkako indarkeriak gure inguruan gertatzen diren giza eskubideen urraketa larrienetakoak dira. Emakumeen eta gizonen arteko botere harremanen desoreka adierazten dute, emakumeak mendean hartzea eta diskriminatzea ekarri duena, eta hori oztopo handi bat da edozein gizarte demokratiko garatzeko.
- Indarkeria horiek gizarte heteropatriarkalen egiturazko fenomenoak dira, eta gizonak emakumeen gainean bereganaturiko nagusitasuna eta abusua justifikatu izan dituzten balio eta arau sozio-kulturaletan oinarritzen da. Indarkeria mota horiek normaltasunez jantzi dira, gizonak emakumeen gainean duten nagusitasuna rolen banaketa desberdin batekin lerrokatzen dela uste izan delako. Barnetik sortuak dira eta, diseinaturiko patrioiaren mendean, bizikidetzaren egonkor egiten dute. Kontrol sozialerako tresnak dira, desberdinkeria eusteko eta berau iraunarazteko.
- Ugariak dira emakumeen aurkako indarkeria motak eta ugariak dira indarkeria hori jasaten duten emakumeen esperientzia pertsonalak. Era berean, horiek guztiak beste zenbait faktoreen arabera ere badira, hala nola jatorri etnikoa, gizarte maila, adina, sexu orientazioa, dibertsitate funtzionala, nazionalitatea eta erlijioa. Faktoreok kontuan hartu behar dira analisia egiteko eta indarkeria jasaten duten emakumeengan hurbiltzean, baina ezin dira informazioaren parte izan inoiz ere ez, ez baitira indarkerien jatorria eta ezta zergatia.
- Emakumeen aurkako indarkeriak desberdinkeria desagerraraziz baino ez dira desagertuko. Emakumeak ahalduntzea funtsezkoa da indarkeriari aurrea hartzeko eta indarkeria jasaten duten emakumeek bizirik irauteko; halaber, haurrak, gazteak eta helduak berdintasunean eta askatasunean hezteko ere funtsezkoa da.
- Gizarte berdinoak lortzeko bidean aurrera egiteak eta teoria eta mugimendu feministaren ekarpenek, neurri handi batean, azaldu egiten dute emakumeen aurkako indarkeriek zilegitasuna galtzea batetik, eta lehen mailako arazo sozial eta politiko gisara





birkontzeptualizatzea bestetik; horren ondorioz, horiek guztiak errotik kentzeko lan egin behar da.

3. TERMINOLOGIA

Indarkeria sexista:


- **Emakume izate hutsagatik** pairatzen den indarkeria. Gizonek eragiten dute eta emakumeak kontrolatzea eta haien gain agintzea du helburu. Ondorio hauek izan ditzake emakumearengan: kalte eta min fisikoa, sexuala eta psikologikoa, baita horiek egiteko mehatxuak ere, eta askatasuna era bidegabeen mugatzea edo guztiz kentzea. Gainera, esparru publikoan zein bizitza pribatuan eragiten dira.
- *14/2015 Foru Legean, apirilaren 10ekoan, Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egitean, emakumeen aurkako indarkeria* esaten zaio.

Emakumeen aurkako indarkeria motak: Fisikoa, psikologikoa, afektiboa, sexuala, ekonomikoa eta soziala *(ez bakarrik norbanakoari eragiten diona, barruan baitaude, besteak beste, hedabideetan, iragarkietan, bideojokoetan, erakundeetako ordezkariak esandakoetan, eta eremu publikoko erreferentzia diren pertsonak emandako mezuetan dagoen indarkeria ere).

Harreman eremu hauetan gerta daitezke: bikotean, familian, lanean eta gizartean *(horren barruan, era berean, festak eta jaiak daude).

Genero indarkeria:

- Kultura matxistak ezarritako **genero, sexu eta sexualitate arauak hausten** dituen ororen aurkako indarkeria.
- Genero indarkeria indarkeriazko egintza oro da, fisikoa nahiz psikologikoa, baita sexu askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak eta nahierara askatasuna kentzea. Hori guztia, diskriminazioaren isla bezala, hau da, desberdinkeria irudi eta gizonek emakumeei ezartzen dizkieten botere harremanen isla bezala, bikotekideek eragiten dute, baita antzeko afektibitate harremanak izan dituztenek ere, nahiz eta elkarrekin bizi ez (*1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriak buruzkoa*).





Indarkeria sexuala:

- **Onartu edo baimendu gabeko edozein sexu ekintza**, indarkeria, mehatxua, nagusikeria edo manipulazio emozionala tarteko direla, sexu harremanak erakutsi, ikusi edo izatera behartzea barne. Hauek guztiak biltzen ditu: sexu eraso, lan edo heziketa esparruko sexu jazarpena, eta familia, komunitate, hezkuntza eta lan inguruetan gertatzen diren sexu abusuak, baita inguru publikoan gertatzen direnak ere (*14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egitekoa*).
- Bortxaketa sexu eraso bat da, eta koitoxa baginatik, uzkitik edo ahotik gauzatzean datza, edo lehenbiziko bi bide horietako batetik gorputz adarren bat edo objekturen bat sartzean (*Zigor Kodearen 179. artikulua*).


Eraso sexistak:

- Erasoa **pertsona batek beste bati egindako botere abusua da**: ez da gaizki ulertua, ezta gatazka ere. Pertsona batek bere burua erasotuzat duenean gertatzen da. Nork bere mugak ditu, eta muga horiek, subjektiboak izateaz gain, aldatu egin daitezke. Ez da bidezkoa inoren mugak zalantzan jartzea.
- Erasoa ez du ezerk justifikatzen (ez drogek, ez portaerak, ez egoteko edo jarduteko moduak...).
- Erasoturiko pertsonak ez dira “biktima pasiboak”, “bizirik atera direnak” baizik. Hori dela eta, haien baimenaz jardungo dugu beti, erabakitzeko duten eskubidea errespetatuz.
- Patriarkatua botere harremanen sistema bat da, eta sistema horretan gizonezko bezala gizarteratzen den jendeak egoera pribilegiatua du. Logika horri jarraituz, gizonek emakumeen gaineko zenbait eskubide hartzen dituzte, eta horrek nagusitasun egoera batean paratzen ditu. Horrek ez du esan nahi gizon guztiak botere hori baliatzen dutenik; bai, aldiz, botere hori baliatzeko eskubidea dutela sinets dezaketela.

Indarkeria mailak eraso sexistaren intentsitatearen arabera:

INTENTSITATE HANDIA: kolpeak, jipoiak, bortxaketa saiakerak, bortxaketak eta hilketa.

ERDIKO INTENTSITATEA EDO TXIKIA:





- Deseroso sentiarazten duten begiradak eta jarrerak, gorputza baimenik gabe ukitzea, gehiegi jasanaraztea, kontrolatzea, jelsia, mehatxuak, xantaiak, eta abar.
- Hitz iraingarri eta umiliagarriak, hitz bidezko abusuak, irainak, isekak, norbanakoaren inguruko mespretxu hitzak, nahi ez diren eta norbanakoa edo taldea barregarri uztea helburu duten “piropoak”.
- Onartzen ez diren ukipen fisikoak, nahi ez diren eta deseroso sentiarazten duten, lotsatzen duten edo erasotzen duten ukitzeak.
- Iraingarriak diren sinbolo sexistak erakustea.

Lurralde esparrua: Altsasuko udalerrria. Hala ere, ‘Eraso sexisten aurkako mahaiaik’ udalerriko emakumeei eragiten dizkieten kasuak baloratu ahal izango ditu, nahiz eta herritik kanpo gertatu.

4. PROTOKOLOA KUDEATZEKO EGITURAK

1. Lurralde esparrua: festa gunetako eraso sexisten aurkako Mahaia: parte hartzeko organo bat da, Emakume eta Berdintasuna batzordeko lehendakaria buru duena, eta hauek osatzen dute: batzordeko alderdi politikoen ordezkariak, Altsasuko Mugimendu Feministako bi kideak, berdintasun teknikariak eta, beharrezkotzat joz gero, zuzenean inplikaturiko udal zerbitzuen ordezkari batek, baita mahaiaik berak zehazten duen beste edonor ere.


Etengabeko lanerako gune bat da, eta festen aurretik eta ondoren aritzen da. Adierazpen bateratu bat adosten du eta, ekarpen guztiak jasorik, mobilizaziorako deia egiten du. Era berean, udala herri akzio gisa pertsonatzeko proposamena ere aztertzen du, 14/2015 Foru Legearen 64. artikulua araberan², emakumeen aurkako indarkeriaren kontra jardutekoaren araberan.

Toki entitateko berdintasun teknikaria arduratuko da mahaiko lanaren koordinazioaz, aholkularitzaz, diseinuaz eta ebaluazioaz, eta lan horien artean hauek egongo dira:

- Sentsibilizazio kanpaina.

² **65. artikulua.** *Administrazioa pertsonatzea emakumeen aurkako indarkeria arrazoiengatik irekiriko prozedura penaletan.*
1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta toki entitateek prozedura penaletan pertsonatzea erabaki ahalko dute herri akzioa egikartzeko, emakumeen aurkako indarkeriaren kasu larrietan edo delitu ekintzaren ondorioz emakumea hiltzen denean, arlo zibilean kalteturiko alderdi gisa, Prozedura Kriminalari buruzko Legearen 110. artikuluan ezarritakoarekin bat.

2. Epaketako ordezkariak eta defentsa Nafarroako Gobernuari eta, kasu bada, toki entitateei dagozkie, ezertan galarazi gabe ordezkariak eta defentsa eginkizun horiek jarduneko abokatu profesional bati edo batzuei esleitu ahal izatea, baldin eta jardunean egonik abokatuen elkargo bateko kide badira, autonomia erkidegoko Administrazioaren zerbitzu juridikoei buruzko araudiari jarraituz, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 447. artikuluan ezarritakoarekin bat.





- Prestakuntza.
- Eraso sexistei erantzuteko adierazpen bateratu bat adostea eta mobilizaziora deitzea, lelo bateratu baten pean.
- Elkarretaratze publiko bateratuak zer ingurutan egingo diren adostea.
- Baliabideen eta zerbitzuen inguruko informazioa telefonoak.

Mahaia festen aurretik eta ondoren elkartuko da gutxienez, baita bi kidek eskatzen duten bakoitzean ere.

2. Udal esparrua: Bozeramaile batzarra.

Eginkizunak:

- Udalaren jarrera ofiziala adostea.
- Erasoen aurrean, Mahaia adosturiko adierazpen bateratutik abiatuz, udalaren adierazpena egitea, eta erabakitzea udalak bandoa aterako duen.
- Erasoen aurrean, Mahaiaren proposamena aztertu ondoren, erabakitzea udala herri akzio bezala pertsonatuko den, 2015eko Foru Legeak, emakumeen aurkako indarkeriaren kontra jardutekoak, 65.1 artikuluan zehazturikoaren arabera.
- Hedabideekin dagoen harremanaz arduratzea, alkatetzaren bidez.


Bozeramaileen batzarrak, beste edozein prozeduratan bezala, berdintasun teknikariaren aholkua jaso ahalko du.

Berdintasun teknikariak komunikazio proposamen bat eta erakunde adierazpen bat aurretik prestatuz izango ditu, kasu larrietarako edo intentsitate handikoak direnetarako. Adierazpen ereduak, baita erakunde erantzuna noiz eta nola egin, gainerako talde politikoekin hitzartu, eta eraso sexisten Mahaiarekin batera adostuko da.

II. ZATIA: IBILBIDEAK

1. AURREA HARTZEKO BIDEAK

* 2018ko eranskinean aldatua, 'Protokoloan parte hartzen duten entitate eta kolektiboaren ardurak' atalean






Festak prestatu aurretik, festa guneak erasorik onartuko ez duten emakumeendako gune aske bezala irudikatu behar dira. Gainera, beharrezkoa da eraso sexisten aurkako Mahaia osatzen duten alderdi guztiek beren ardurak ezagutzea eta ardurok bere gain hartzea.

UDALAREN ARDURAK:

- Festetan berdintasun kanpaina bat garatzea. Horrek hauek hartzen ditu barne: adierazpenak, bandoak, kartelak kaleetan, elkarteetan, tabernetan, dendetan eta festa egitarauetan, esku gorridun txapak, pegatinak, olanak, zapiak, bizkar zorroak, eta abar.
- Festetan, berdintasuna sustatzen duten ekitaldiak antolatzea.
- Nafarroako Berdintasunerako antolaturiko “Eta festetan zer” kanpainan, Nafarroako Gobernuko kanpainetan edo toki entitateek, kolektiboek, GKE-ek, eta abarrek) antolaturiko kanpainetan parte hartzea.
- Eragileak prestatzea, bakoitzak esparru honetan betetzen duen paper jakinari erreparatuz.
- Festetan esku hartzen duten udal zerbitzuak koordinatzea.
- Hizkuntzaren eta irudien erabilera sexista saihesteko, aholkularitza eta jarraipen lanak, udalak zuzenean egindako ekintzetan baita udaletik kanpo kontratatzen dituenetan ere.
- Emakumeendako autodefentsa eta ahalduntze ikastaroak antolatzea.
- Udalerriko gune arriskutsuak nabarmentzen dituzten mapak egitea, baita gune horiek hobetzeko proposamenak aztertzea, herriko emakumeekin batera.
- Berdintasunari buruzko lehiaketak antolatzea.
- Erasoen aurkako jarraibideak dituzten gidak egitea.
- Genero adierazleak garatzea festak eta horietan generoak duen eragina ebaluatzeko.
- Gidak, dekalogoak, eskuliburuak, eta abarrak garatzea, emakumeendako, herritarrendako, kolektiboendako eta elkarteendako.
- Jardunbideak garatzea udaleko zerbitzuendako eta kanpoko kontratazioendako: Udaltzaingoak, orkestrak, animazio eta antzerki taldeak, kirol taldeak eta kirolariak, eta abar.





*** PROTOKOLOAN PARTE HARTZEN DUTEN ENTITATE ETA KOLEKTIBOEN ARDURAK:**

- Udalak antolaturiko prestakuntzan eta festetako eraso sexisten aurkako Mahairen sentsibilizazio kanpainan parte hartzea, proposamenak eginez eta, beharren arabera Mahaia deitzen denean, lagunduz.
- Festetako jardun osoan, eraso sexisten gaitzespena eta erantzuna biltzea.

2. JARDUNBIDEAK

2. 1. JARDUTEKO IRIZPIDEAK

2. 2. LEHEN ARRETA

2. 3. ERAKUNDEEN ETA HERRITARREN ERANTZUNA

2.1. Eraso sexista bat gertatzekotan, hauek dira JARDUN ORORAKO IRIZPIEK :

Erasotua babestea.

Haren iritzia eta nahiak errespetatzea, baita datu pertsonalak isilpean gordetzea.

Koordinazioa.

Erasotzailea nor den jakitea.

Zurrumurruak saihestea eta moztea


2.2. LEHEN ARRETA

INTENTSITATE TXIKIKO/ERDIKO ERASOETAN*

**2018ko eranskinean aldatua*

Zertarako?

- Erasotua lagundu eta babesteko





	- Erantzuna koordinatzeko - Eraso sexistak festa guneetatik desagerrarazteko
Noiz?	Norbait hurbiltzen zaigunean, esanez eraso bat jasan duela edo txosnetan, tarbenetan edo kalean norbait beste bat erasotzen edo gogaitzen (“kaka ematen”, “lerdea botatzen”...) dabilenean.
Nork?	Edozein pertsona edo entitatek


Zer egingo dugu?

1. Erasoturiko emakumea bazara, eskatu laguntza zurekin dagoenari edo barra zaintzen dabilenari.
2. Beste pertsona bat bazara: entzun, aztertu auzia eta errespetatu emakumearen erabakia, intimitatea eta konfidentzialtasuna.
3. Galdetu erasotuari laguntzarik behar duen. Ezetz esaten badu, ez gara tematuko.
4. Baietz esaten badu, laguntza eskainiko diogu eta behar duen lekura lagunduko dugu. Gainera, udaleko Emakumearen Gelaren zenbakia emango diogu, 948 564 823, nahi izanez gero, eskura dituen baliabideen berri izan dezan.
5. Erasotzailea festa gunetik, tabernatik edo lekutik joatea bultzatu; joan dadin eskatu. Ez badu kasurik egiten, ahalik eta jende gehien biltzen saiatu, joan dadin.

INTENTSITATE HANDIKO ERASOETAN*


**2018ko eranskinean aldatua*

Zertarako?	- Erasotua lagundu eta babesteko - Erantzuna koordinatzeko
-------------------	---------------------------------------------------------------





Noiz?	- Eraso sexista bat ikustean - Norbait laguntza bila etortzen zaigunean
Nork?	- Edozein pertsona edo entitatek
Zer egingo dugu?	
<ol style="list-style-type: none">1. Erasoturiko emakumea bazara, eskatu laguntza zurekin dagoenari edo barra zaintzen dabilenari.2. Eraso bat ikusten duzunean, erasotuairengana jo eta galdetu laguntzarik behar duen. Norbait laguntza bila etortzen bazaizu, eman lehentasuna.3. Entzun arreta eta errespetu handiz. Eman babes emozional osoa, eta ez utzi bakarrik.4. Berehalako laguntza behar badu, hots egin hona: 112 SOS Egon erasotuairekin zerbitzuak heltzen diren arte eta ikusi erasotzailea nor den.5. Ez badu berehalako laguntzarik behar, galdetu salatu nahi duen.	
BAI , salatu nahi du. Telf.: 112 SOS Bortxatua izan bada, esaiozu arropaz ez aldatzeko eta ez garbitzeko; bortxaketa ahotik izan bada, saiatu ez dezan ez urik ez jatekorik hartu, bestela erasotzaileak utzitako arrastoak desager daitezke eta.	
EZ du salatu nahi. <ol style="list-style-type: none">1. Foruzaingora, Ospitalera edo Osasun Etxera joan behar badu (guztietarako 112 telefono zenbakia), jakin dezala, ofizioz, salaketa egiten dutela.2. Eskaini udaleko Emakumearen Gelaren zenbakia, 948 564 823, eskura dituen baliabideen berri izan dezan.	





EZ BADAKI salatu nahi duen edo ez.

1. Adierazi frogak ez dituela desagerrarazi behar zer egin erabakitzen duen arte.
2. Eskaini udaleko Emakumearen Gelaren zenbakia, 948 564 823, eskura dituen baliabideen berri izan dezan.

2. 3. ERAKUNDEEN ETA HERRITARREN ERANTZUNA

INTENTSITATE TXIKIKO/ERDIKO ERASOETAN

Helbide elektronikoko hau aktibatzen da festetan gertatzen den edozein sexu eraso jasotzeko, baita gai honen inguruan gertaturiko edozein lekukotasunen berri izateko ere.

altsasun.erasorikez@gmail.com

Helbidea Altsasuko Mugimendu Feministako kide bakar batek kudeatuko du, eta horrekin harremanetan jartzeko bideak eraso sexisten aurkako Mahaiari emango zaizkio.


Mezuan indarkeria egoeran dauden emakumeendako zerbitzuren bat eskatzen bada, berdintasun teknikariari jakinarazi beharko dio. Edozein kasutan, egokitza jotzen duenean edo festak amaitu direnean, jasotakoaren laburpen bat helarazi beharko dio Mahaiari (datu pertsonalen berri eman gabe); eta jakina jasoriko informazioaren bati publikoki erantzun aurretik egin beharko du.

Eraso sexisten aurkako Mahaiak erabakiko du jasotako informazioaren balioespen publikoa egingo duen.

INTENTSITATE HANDIKO ERASOETAN

Udalak ez du bat-bateko erantzunik emango jasoriko informazioa egiaztatu arte, hedabideek hori bilatuko balute ere.

- ✓ Emakume eta Berdintasuna Batzordeko buruak '**eraso sexisten aurkako Mahaia**' deituko du:
 - Erasoren berri jendartean zabaldu bada, biztanleak erantzutera deituko dira.






- Emango den erantzuna adosteko, erasotuaren erabakia, intimitatea eta konfidentzialtasuna errespetatuz.
- Erakundeen adierazpenaren eta Altsasuko Mugimendu Feministaren adierazpenaren berri Mahaiari emateko.
- Udalak, Altsasuko Mugimendu Feministaren nabarmentasuna aitortuz, kolektiboak Mahaiarekin adosturiko deialdia babestuko du. AMFk ez badu esku hartzen, deialdia udalak egingo du, alderdi politiko guztien babesarekin.

Foru plazako elkarretaratze deialdiko lelo bateratua hau izango da:

‘Ez Altsasun, ez inon; eraso sexistarik ez!

(Ni en Alsasua, ni en ningún otro lugar: No agresiones sexistas!)

- Deialdi honetan adierazpen bateratu bat irakurriko da.
- Jardunbide honen guztiaren berri emango da, baina lehentasunez festetan parte hartzen duten mugimendu sozial eta elkarteei emango zaie.
- ✓ Alkatetzak **Bozerramaile batzarra** deituko du.
- Berdintasun teknikariak erakunde adierazpen baterako proposamena aurkezturik izango du. Bozerramaile batzarrak azken adierazpena adostu eta ontzat emango du.
- Gertaturikoak leku nabarmena izango du udalaren webgunean. Behin onarturik, erakunde adierazpena eskegi egingo da.
- Idazkaritzatik, erakunde adierazpena gainerako udalei bidaliko zaie, NUKFren bidez bat egin dezaten eskatzeko.
- Udalak, berdintasun teknikariaren bitartez eta, ez badago, Emakume eta Berdintasuna Batzordeko buruaren bitartez, Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin harremanetan jarriko da, gertaturikoaren berri emango dio eta batu dadin eskatuko dio.
- Udalak, berdintasun teknikariaren bitartez eta, ez badago, Emakume eta Berdintasuna Batzordeko buruaren bitartez, ‘Indarkeria egoeran dauden emakumeak artatzeko Koordinazio Taldea’ osatzen duten organismoetara joko du, biktimaren beharrei ahalik eta azkarren eta era koordinatuan erantzuteko eta berbiktimizazio prozesurik gerta ez dadin. Era berean, artatzen





duen organismoaren bidez, udalak eskaintzen dizkion baliabideen berri emango zaio biktimari, baita Nafarroako Gobernuaren mende dauden zerbitzuen berri ere.

✓ **Gizarte mugimendu eta entitateak**

Erasoa gertatu bezain laster, publikoa izan bada, musika kenduko da, bozgorailuen bidez gertaturikoaren berri emango da eta txosnak une batez edo denbora luzeagoz itxiko dira.

UDALAREN JARDUNBIDEA EMAKUME BAT HILTZEN BADUTE


Nahiz eta eraso larrien kasu guztietan jarduten den moduaren antzera jardun, bere larritasunarengatik eta gertakariak jendaurrean izango duen oihartzunarengatik, udalaren jardunak amaituta egon beharko du ahalik eta azkarrena, alkatetzak gertakari horren berri izan duenetik. Kalkulatzen den epe gomendagarria 36 orduetik beherakoa da.

✓ Alkatetzak **Bozeramaile batzarra** deituko du.

- Osoko bilkura berezia egingo da.
- Erakunde adierazpena onartuko da.
- Erabakiko da udala bera akusazio partikular moduan pertsonatuko den.
- Gertaturikoak leku nabarmena izango du udalaren webgunean.
- Erabakiko da banderak masta erdian paratuko diren eta zenbat denboraz egongo diren horrela.
- Idazkaritzak erakunde adierazpena gainerako udalei bidaliko die, NUKFren bidez batu daitezzen eskatzeko, eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuari ere bidaliko dio.
- Eskertze ohar bat sinatuko du alkatetzak eta udaleko webgunean, Facebookean, eta abarretan eskegiko da.
- Doluminak eta familiarendako babesa adierazten duten udalendako eskertze ohar bat sinatuko du alkateak, eta udaleko webgunean eskegiko da.

✓ **Festetako eraso sexisten aurkako Mahaia** berehala deituko da

eta Intentsitate Handiko Erasoen atalean zehazturiko jarrabideak jarraituko dira.





4. KOORDINATZEKO BIDEAK


- Protokoloaren burua Emakume eta Berdintasuna Batzordea da, eta batzordeburuak jarriko du abian eta garatuko du, berdintasun teknikariaren laguntzaz.
- Erasoturiko emakumearen eta haren inguruaren arteko harremani dagokienez, udalak gainerako erakundeekin koordinaturik jardungo du, eta emakumea artatzen ari diren organismoaren bidez jarriko da harremanetan. Udalarekin harremana izatea onartuz gero, eskura dituen baliabideen berri emango zaio eta, hala nahi badu, horiei sarbidea emango zaio.
- Protokoloaren eta protokolutik eratortzen den jardun ororen berri emango zaio indarkeria egoeran dauden emakumeak artatzeko Koordinazio Taldeari, baita Genero Indarkeriatik Bizirik Atera Diren Emakumeen Taldeari ere, eta proposamenak eskatuko zaizkie.
- Protokoloa bera baita protokolutik eratortzen diren jardunen berri emango zaie udal zerbitzuei, talde politikoei, kolektiboei eta Festa Batzordean parte hartzen duten pertsonei.
- Egindako balioespena festen balioespen orokorrean sartuko da.
- Festetan protokoloaren aplikazioa nolako izan den ebaluatuko eta balioetsiko duen txostena zerbitzuei, entitateei, kolektiboei eta biztanleriari helaraziko zaie.

5. KANPOKO INFORMAZIORAKO BIDEAK

Dokumentuan aurretik ere esan den moduan, udalak ez du bat-bateko erantzunik emango jasoriko informazioa egiaztatu arte, hedabideek hori bilatuko balute ere.

Informazio guztia konfidentziala izango da eta auzian zuzenean esku hartzen dutenek baino ez dituzte eraso bizi duen emakumea edo erasotzailea nor diren jakiteko datuak ezagutuko.

Era berean, udalak eta protokoloan esku hartzen duten gainerako entitateek saihestu egingo dute biktima nor den edo haren inguruarekin lotuko duen informaziorik ematea, biktimak bere intimitaterako duen eskubidea babesteko eta berbiktimazioa saihesteko. Zer-nolako indarkeria eragin/jasan den jakiteko eta hartutako neurriak zilegi direla erakusteko behar diren datu orokorrak baizik ez dira emango.





3. Arreta handiz adostu behar da zer esan eta zer ez, **erasoa jasan duen emakumea** nor den babesteko. Bere iritzia kontuan hartuko da: bere bizipena publiko egin nahi duen edo ez, eta nola egin nahi duen.

Alde batera utziko ditugu eraso jasatearen errua emakumeari botatzen dizkioten diskurtsoak, hau da, besteak beste bere jarrera, janzkera, erasotzailearekin duen harremana, eraso zer ordutan gertatu den aipatzen duten diskurtsoak. Erasotzailea ez salatzea erabakitzen badu, ez da arduradun bezala aurkeztuko; era berean, kontuan izango da salaketa eraso gertatu eta egun batzuetara egiteak ez diola salaketari indarrrik kentzen.


4. Arduradun bakarra **erasotzailea** da eta argi utzi behar da ez dagoela profil jakinik: aberatsa zein txiroa izan daiteke, lankidea edo nagusia, klasekidea, hemen jaioa edo kanpotik etorria, eta abar.
5. Erasoa jasan duen emakumearen edo erasotzailearen **jatorria edo kultura** ez dira aipatu ere egingo, ez delako esanguratsua eta xenofobia eta arrazakeria bultzatu besterik ez duelako egiten.
6. **Mobilizazio** deiek jardun matxista horien inguruko isiltasuna haustea, kontzientzia sortzea eta sentsibilizatzea dute helburu.

PROTOKOLOAREN 2018 ERANSKINA

AURKEZPENA

Altsasuko udalak, 2017ko abuztuaren 30ean eta Emakume eta berdintasuna Batzordeak proposaturik, **Festa guneetako eraso sexistei aurrea hartzeko eta artatzeko toki protokoloa** onartu zuen; protokoloa, gainera, Altsasuko Mugimendu Feministarekin, indarkeria matxista bizitzeko arriskuan dauden emakumeak artatzeko Koordinazio Taldearekin eta Genero Indarkeriatik Bizirik Atera Diren Emakumeen Taldearekin batera adostu eta aurkeztu zen.

Iazko esperientziaren ondoren, ikusirik batetik mugimendu feministaren jarrera eta, eraso sexistak une oro eta gure festa inguruetan gertatzen direnean, gizarte erantzunak nola egin duten aurrera





bestetik, Altsasuko Mugimendu Feministak iaz onarturiko protokoloa hedatzea eta hobetzea proposatu dio udalari, dokumentu honek biltzen duen moduan.

Proposamen hau, udalaren Toki Gobernuko Batzarrak 2018ko abuztuaren 27an onartua, saio pilotu moduan planteatzen da, balioetsi eta gero protokoloaren jasoko jasoko dena.




2018ko eranskinak protokoloaren egiturari eta zenbaketari jarraitzen die, aldaketak eta hedapenak zer ataletan planteatzen diren errazago ikus dadin

1. AURREA HARTZEKO BIDEAK

PROKOLAN PARTE HARTZEN DUTEN ENTITATE ETA KOLEKTIBOEN ARDURAK:

- Udalak antolaturiko prestakuntzan eta festetako eraso sexisten aurkako Mahairen sentsibilizazio kanpainan parte hartzea, proposamenak eginez eta, beharren arabera Mahaia deitzen denean, lagunduz.
- Festetako jardun osoan, eraso sexisten gaitzespena eta erantzuna biltzea.
- Altsasuko Mugimendu Feministak INFORMAZIO ETA SALAKETA GUNE bat paratuko du festek iraun bitartean. Gure Etxeako behealdean egongo da, eta, gehienez ere, 20.00etatik 3.00etara egongo da zabalik.
- Izan beharreko jardunbidearen berri emango die Altsasuko tabernei, eta eduki sexistarik gabeko abestien play-list bat eskainiko die, festetan para dezaten.
- Plazan eta txosnetan paratzeko adierazpen bat diseinatu eta grabatuko du.





2. JARDUNBIDEAK

2.2. LEHEN ARRETA

INTENTSITATE TXIKIKO/ERDIKO ERASOETAN

Zer egingo dugu?


1. Erasoturiko emakumea bazara, eskatu laguntza zurekin dagoenari edo barra zaintzen dabilenari.
2. Beste pertsona bat bazara: entzun, aztertu auzia eta errespetatu emakumearen erabakia, intimitatea eta konfidentziasuna.
3. Galdetu erasotuari laguntzarik behar duen. Ezetz esaten badu, ez gara tematuko.
4. Baietz esaten badu, laguntza eskainiko diogu eta behar duen lekura lagunduko dugu. Altsasuko Mugimendu Feministak kudeatzen duen etengabeko informazio eta salaketa guneko telefono zenbakia emango diogu: 602 457 947.

Gainera, udaleko Emakumearen Gelaren zenbakia emango diogu, 948 564 823, nahi izanez gero, festen ondoren, eskura dituen baliabideen berri izan dezan.
5. Erasotzailea festa gunetik, tabernatik edo lekutik joatea bultzatu; joan dadin eskatu. Ez badu kasurik egiten, ahalik eta jende gehien biltzen saiatu, joan dadin.

INTENTSITATE HANDIKO ERASOETAN

Zer egingo dugu?

1. Erasoturiko emakumea bazara, eskatu laguntza zurekin dagoenari edo barra zaintzen dabilenari.
2. Eraso bat ikusten duzunean, erasotuairengana jo eta galdetu laguntzarik behar duen. Norbait laguntza bila etortzen bazaizu, eman lehentasuna.





3. Entzun arreta eta errespetu handiz. Eman babes emozional osoa, eta ez utzi bakarrik.

4. Berehalako laguntza behar badu, hots egin hona:

112 SOS

Egon erasotzarekin etortzen diren arte eta ikusi erasotzailea nor den.

5. Ez badu berehalako laguntzarik behar:

Altsasuko Mugimendu Feministak kudeatzen duen etengabeko informazio eta salaketa guneko telefono zenbakia emango diogu: 602 457 947

Salatu nahi duen galdetu

BAI, salatu nahi du. Telf.: 112 SOS

Bortxatua izan bada, esaiotzu arropaz ez aldatzeko eta ez garbitzeko; bortxaketa ahotik izan bada, saiatu ez dezan ez urik ez jatekorik hartu, bestela erasotzaileak utzitako arrastoak desagertu daitezke eta.


EZ du salatu nahi.

1. Foruzaingora, Ospitalera edo Osasun Etxera joan behar badu (guztietarako 112 telefono zenbakia), jakin dezala, ofizios, salaketa egiten dutela.
2. Eskaini udaleko Emakumearen Gelaren zenbakia, 948 564 823, eskura dituen baliabideen berri izan dezan.

EZ BADAKI salatu nahi duen edo ez.

1. Adierazi frogak ez dituela desagerrarazi behar behar zer egin erabakitzen duen arte.
2. Eskaini udaleko Emakumearen Gelaren zenbakia, 948 564 823, eskura dituen baliabideen berri izan dezan.

2. 3. ERAKUNDEEN ETA HERRITARREN ERANTZUNA





INTENTSITATE HANDIKO ERASOETAN

✓ **Udalak:**

Arratsaldeko musika emanaldia etetea aginduko du erasoen aurkako Mahaiak erabakitzen duen orduetan.

✓ **Gizarte mugimendu eta entitateak:**

Erasoa nork egin duen badakigu, ez zaio txosnetara edo festa ingurura sartzen utziko. Mahaiak aurretik onarturik, eraso salatzeke eta gaitzesteko elkarretaratzea deituko da. Gutxienez elkarretaratzeak iraun bitartean, txosnak eta karpa itxirik egongo dira, eta Herri Mugimenduarekin batera adostuko da gutxieneko denbora hori baino luzeago egongo diren itxirik. Era berean, gauza bera egin dezaten proposatuko zaie tabernei.

PROTOKOLOAREN GARAPENA 2018. URTEAN

4. PROTOKOLOA KUDEATZEKO EGITURAK

1. Lurralde esparrua: festa gunetako eraso sexisten aurkako Mahaia: parte hartzeko organo bat da, eta hauek osatzen dute: batzordeko alderdi politikoaren ordezkariak, Altsasuko Mugimendu Feministako bi kideak, berdintasun teknikariak eta, beharrezkotzat jotzen gero, zuzenean inplikaturiko udal zerbitzuen ordezkari batek, baita Mahaiak berak zehazten duen beste edonor.

Udala:

1. Emakumearen eta Berdintasunaren Batzordea: Arantza Bengoetxea Intxausti
2. Berdintasun eragilea: Idoia Goikoetxea Gómez


Altsasuko Mugimendu Feminista:

1. Saioa Arregi Olivenza
2. Gurutze Arregi Mujika

Herri Mugimendua:

1. June Bengoetxea Irigoien

Mahaia festen aurretik eta ondoren elkartuko da gutxienez, baita kide batek eskatzen duen bakoitzean ere.





II. ZATIA: IBILBIDEAK


1. AURREA HARTZEKO BIDEAK

UDALAREN ARDURAK:

- Festetan berdintasun kanpaina bat garatzea. Horrek hauek hartzen ditu barne: adierazpenak, bandoak, kartelak kaleetan, elkarreetan, tabernetan, dendetan eta festa egitarauetan, esku gorridun txapak, pegatinak, olanak, zapiak, bizkar zorroak, eta abar.
 - Festen programan NBIren irudia sartzea.
 - Irudi horretan informazio eta salaketa gunearen informazioa eta zenbakia jasotzea.
 - Esku gorria duten zapiak eta brotxeak banatzea.
 - Esku gorriko pankartak leku estrategikoetan: udaletxean, kioskoan eta eszenatokian.
- Eragileak prestatzea, bakoitzak esparru honetan betetzen duen paper jakinari erreparatuz.
 - Gazteendako bi ikastaro egitea: 'Eraso sexisten kontrako gure erantzuna indartuz'. Bata, 'Autodefensa feminista'ren inguruan, neskei zuzenduko zaie eta bestea, mutilei zuzendua, maskulinitatearen eta erasoen aurrean izan beharreko erantzunaren ingurukoa izango da.
Irailaren 8an egingo dira.
- Erasoen aurkako jarraibideak dituzten gidak egitea.
 - Tabernen, txosnen eta elkarreen jardunbide ESKEMA berritzea, inprimatzea eta banatzea.
- Gure Etxea uztea informazio eta salaketa gunea paratzeko.

ALTSASUKO MUGIMENDU FEMINISTAREN ARDURAK

- Festetan, INFORMAZIO ETA SALAKETA GUNEA kudeatzea, gehienez ere 20.00etatik 3.00etara.
- Informazio eta salaketa telefono zenbakiaren ardura: 602 457 947.
- Tabernei eta txosnei beren jardunbidearen berri ematea.





- Sexistak ez diren abestiak dituen play-list bat eskaintzea tabernei.

2. JARDUNBIDEAK

Helbide elektronikohoni eutsiko zaio festetan gertatzen den edozein sexu eraso jasotzeko, baita gaihonen inguruan gertaturiko edozein lekukotasunen berri izateko.

altsasun.erasorikez@gmail.com

Foru plazako elkarretaratze deialdiko lelo bateratu honi eutsiko zaio:

‘Ez Altsasun, ez inon; eraso sexistarik ez!

(Ni en Alsasua, ni en ningún otro lugar: No agresiones sexistas!)

3. KOORDINATZEKO BIDEAK

- Protokoloan bertan adierazten den moduan, protokoloaren eta protokolutik eratortzen den jardun ororen berri emango zaio indarkeria egoeran dauden emakumeak artatzeko Koordinazio Taldeari, baita Genero Indarkeriatik Bizirik Atera Diren Emakumeen Taldeari ere, eta proposamenak eskatuko zaizkie.

Udalak egingo du, abuztuaren 27aren, astelehenaz, ondoren.

- Protokoloa bera baita protokolutik eratortzen diren jardunen berri emango zaie udal zerbitzuei, talde politikoei, kolektiboei eta Festa Batzordean parte hartzen duten pertsoneri.
- Udalak emango du berri, abuztuaren 27aren ondoren.
- Egindako balioespena festen balioespen orokorrean sartuko da.

